



Arartekoaren 2024R-3284-23 Ebazpena, 2024ko martxoaren 20koa. Honen bidez, Bilboko Udalarari gomendatzen zaio kexagileari ordaintzeko praktikaldian zegoenean benetan bete zuen lanpostuari (28. maila) dagozkion lansari osagarrien eta jaso duen zenbatekoaren arteko aldea.

Aurrekariak

1. Pertsona batek (...) Arartekoaren esku-hartzea eskatu du Bilboko Udalean praktiketako funtzionario gisa izendatu zuten epealdian jaso zituen lansariei lotuta.

Haren esanetan, ekonomialarien 7 plaza betetzeko hautaketa-prozesuan parte hartu zuen. Alkatetza, Kontratazioa eta Giza baliabideen Arloko zinegotzi eskuordearen 2019ko uztailaren 24ko Ebazpenaren bidez deitu zen prozesu hori, eta 2019ko abuztuaren 7ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Oposizio-faseko probak gainditu zituen, eta, lehiaketa-faseko puntuazioa ere kontuan hartuta, guztira lortu zuen puntuazioari esker izangaien zerrendako (...) postuan geratu zen. Beraz, praktiketako funtzionario izendatu zuten 2022ko martxoaren 14an eta (...) Arlori atxiki zuten, honako lanpostu honetan: *“1925.00 Unitateko Arduraduna / 25. Goi Teknikaria, 25. mailako lanpostu-osagarria eta nahitaezkoa ez den 3. HE, XXXX lanpostuari lotua.”*

Praktikaldia bukatu zenean, karrerako funtzionario izendatu zuten (2022ko azaroaren 1etik aurrerako ondorioekin), eta “XXXX” deritzon lanpostua jabetzan eman zioten; lanpostu-mailako osagarriaren 28. maila duen lanpostua, hain zuzen.

Azaldutakoaren arabera, pertsona hori praktiketako funtzionarioa izan zen aldian, bere eginkizunak betetzen aritu zen lanpostu generiko batean, 25. ordainsari-mailarekin, baina 28. ordainsari-maila esleituta duen eta azkenean jabetzan esleitu zitzaion lanpostu espezifiko bati lotuta zegoen.

Kexaren arabera, praktikaldian, bai kaltetuak bai atxikita zegoen arloko Zuzendaritzak behin eta berriz eskatu zuten 28. mailari zegozkion lansariak ordaintzeko, betetzen ari zen buruzagitza-postuarekin bat zetozenak.

Eskaera horien oinarrian zegoen, besteak beste, bera bezala praktiketako funtzionario izendatu ziren gainerako pertsonak atxiki ziren lanpostuen lansariak



kobratu zituztela (26., 27. eta 28. mailak). Kaltetuaren eta beste pertsona horien arteko alde bakarra zen azken horiek lehendik zerbitzuak eman zituztela Bilboko Udalean, eta kexagileak, berriz, ez zuela zerbitzu hori eman toki-administrazio horretan, (...)n baizik.

Planteatutakoari berriazko erantzunik eman ez ziotenez, 2023ko urtarrilaren 31n, kexagileak idatzizko eskaera bat aurkeztu zuen, eta, horren bidez, eskatu zuen 2022ko martxoaren 14tik azaroaren 1era arteko aldiari zegokion 25. eta 28. mailen lansarien arteko aldea ordaindu ziezaiotela.

Aipatutako eskaera ezetsi egin zen, eta, horretarako ebazpenean, argudiatu zen erabakia Bilboko Udalaren lanpostu-zerrendan jasotako xedapenetan zegoela oinarrituta. Alde batetik, kexagilea 25. mailako lanpostu generiko batera atxiki izana honako aurreikuspen honen ondorio izan zen¹:

“A (A1) eta B (A2) taldeetako bitarteko edo praktiketako langileak, buruzagitzako lanpostuak betetzeko lehen aldiz izendatzen badira, hasiera batean sarrerako kategoriari atxikiko zaizkio (25. maila A (A1) taldearen kasuan (...)), eta kategoria horretan egongo dira, gutxienez, probaldian edo praktika-aldian. Era berean, 6 hilabetetik beherako aldi baterako ordezkapenak ere sarrerako kategoria horri atxikiko zaizkio.

Goragoko mailetako lanpostuetara edo kategorietara iritsi ahal izateko, administrazio honetan edo beste batean beren kategoriako plazan esperientzia egiaztatzeaz gain, destinoko sailako zuzendaritzak emandako eta Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzara igorritako txosten bat beharko da, lanpostuaren burutzako eginkizunen betearazpenari buruzkoa. Zuzendaritza horrek, egoki bada, maila-aldaketa gauzatuko du, eta ondorioak izango ditu langileak kategoria bakoitzerako behar den esperientzia daukanean eta, egoki bada, probaldia edo praktika-aldia igaro ondoren.”

Bestalde, 25. mailako lanpostu generiko bateko izendapenaren eta 26., 27. eta 28. mailako lanpostu zehaztuetan parte hartzen duten gainerako pertsonen izendapenaren arteko aldea zen kexagilea beste administrazio batetik zetorren bitarteko funtzionario bat zela, eta beste pertsonak, berriz, Bilboko Udaleko bitarteko funtzionarioak zirela. Beraz, pertsona haiei beste aurreikuspen bat aplikatu zitzaion. Ebazpenak honako hau transkribatu zuen:

“Karrerako funtzionarioak ez badira edo aurretiazko esperientzia hori ez badute, funtzionarioak 25. mailako arduradunaren kategoriara egongo dira atxikita, harik eta 3 urteko esperientzia eduki arte. Beraz, 3 urte horiek betetakoan, 26. mailako arduradunaren kategoriara igaroko dira, eta, azkenik, 27. mailako kategoriara iritsi ahal izango dira 6 urteko esperientzia daukatenean.

Salbuespenetan, udaleko ordainsari-talde horretako lanpostuaren garapenean gutxienez 9 urteko esperientzia daukaten bitarteko funtzionarioek bete ahal izango dituzte 28. mailako buruzagitzako lanpostuak.”

¹Ezesteko ebazpenean bertan dago azpimarra.



2. Arartekoak idazki baten bidez laguntza eskatu zion Bilboko Udalari. Gaiari lotutako zenbait gogoeta egin zizkion eta honako hauei buruzko informazioa emateko eskatu zion:

- Zergatik ez zitzaion aplikatu kexagileari Bilboko Udalaren lanpostuen zerrendan jasotzen den xedapena, prozesuko beste partaide batzuei aplikatu zaien bezalaxe. Hala egin bazen, 25. lansari-mailatik gorakoa izango zuen. Gainera, administrazio publiko batean lan egiteagatik zeukan esperientziak gainditu egiten zuen 28. lansari-mailara atxikitzeko eskatzen ziren urteak.
- Ea gainerako partaideak buruzagitza-lanpostuetarako izendatu ziren aurretik, ea baldintza horretatik salbuetsita geratzeko moduko esperientziarik zuten kategoria horretan edo, azken batean, zergatik ez zitzaien pertsona horiei aplikatu kexagileari aplikatu zitzaion xedapena.

3. Bilboko Udalak erantzun-txosten bat bidali zuen eta, besteak beste, honako hauek azaldu zituen:

“...tras la realización del proceso selectivo para la obtención en propiedad de una plaza de economista, fue nombrada funcionaria en prácticas el día 14 de marzo de 2022. Durante el periodo de prácticas, que abarcó el periodo comprendido entre el 14 de marzo y el 1 de noviembre de 2022, quedó adscrita a una dotación del puesto de trabajo 1925.00 Responsable Unidad/Técnica Superior N.25, de nivel 25 de complemento de destino. Una vez finalizado el periodo de prácticas quedó adscrita con carácter definitivo al puesto de trabajo XXXX, de nivel 28 de complemento de destino, del Área (...), percibiendo desde ese momento las retribuciones propias del nivel 28 de complemento de destino.

Durante el periodo de prácticas la interesada percibió las retribuciones propias del puesto de trabajo 1925.00 Responsable Unidad/Técnica Superior N.25, de nivel 25 de complemento de destino, en aplicación de lo dispuesto en la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Bilbao que establece que “Las personas interinas o en prácticas pertenecientes a los Grupos A (A1) y B (A2) que sean nombradas por primera vez para desempeñar puestos de jefatura serán inicialmente adscritas a la categoría de entrada (nivel 25 en el caso del grupo A (A1), donde permanecerán al menos durante el periodo de prueba o de prácticas. Para poder acceder a puestos o categorías de niveles superiores, además de acreditar experiencia en esta u otra administración en plaza de su categoría, se precisará de un informe sobre el desempeño de las funciones de jefatura del puesto emitido por la Dirección del Área de destino y remitida a la Dirección de Organización y Gestión de Recursos Humanos que, en su caso, hará efectivo el cambio de nivel, con efectos a la fecha en la que se disponga de la experiencia precisa para el acceso a cada categoría y, una vez transcurrido, en su caso, el periodo de prueba o de prácticas”.

Es decir que todas las personas, y no exclusivamente la [persona promotora de la queja], que son nombradas por primera vez en un puesto de jefatura de los Grupos A1 y A2, bien en prácticas o bien con carácter de interinas, son adscritas, en todo caso, a un puesto de la





categoría de entrada, que lleva aparejado un nivel 25 de complemento de destino. Se adjunta copia del Anexo de la RPT en el que constan estas circunstancias.

En el caso de las personas funcionarias de carrera, sólo percibirán las retribuciones propias del puesto de jefatura al que hayan sido adscritas, una vez finalizado el periodo de prácticas definido en cada proceso selectivo y siempre que dispongan de la experiencia necesaria, bien dentro del Ayuntamiento de Bilbao, bien en otra Administración Pública”

Bilboko Udalaren txostenean honako gogoeta hauek ere egin ziren:

“Podemos, asimismo, mencionar otros procesos selectivos en los que en aplicación del citado Anexo, a aquellas personas que fueron nombradas en puestos de jefatura por primera vez, se les asignó una categoría retributiva del nivel 25 de complemento de destino, por no haber desempeñado puestos de jefatura en la Administración municipal de Bilbao. (...)

En ambos casos, se trataba del primer nombramiento de ambas personas como funcionarias en el Ayuntamiento de Bilbao.

Otras personas, que también obtuvieron plaza en propiedad en el citado proceso selectivo de TAG, fueron adscritas directamente a puestos de Jefatura, porque previamente ya habían ido desarrollando su carrera en diversos puestos de jefatura, siendo inicialmente adscritas a categorías vinculadas a dichas jefaturas. Sin embargo, en el momento en que fueron nombradas como funcionarias interinas vinculadas a un puesto de jefatura, percibieron las retribuciones propias del puesto de Responsable Unidad/Téc. Superior N.25”

Gogoetak

1. Kexa-espedita honetan aztertu den hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoetako bederatzigarren oinarrian xedatzen da: *“Izendatzen diren hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira eta eskubidea izango dute udal langileen ordainsariak arautzen dituen erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko; era berean, alta emango zaie funtzionarioei aplikatzen zaien Gizarte Segurantzako araubidean.”*

Bestalde, Bilboko Udala toki-administrazioa denez, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 93.1 artikuluan ezarritakoa ekarri behar da: *“Toki-administrazioetako funtzionarioen oinarrizko ordainsariek funtzio publiko osorako orokorrean ezarritakoen egitura bera eta zenbateko berdina izango dute.”*

Horri lotuta, kexagileak eskatutakoa aztertu ahal izateko kontuan izan behar da 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 26. artikulua ezarritakoa (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatua. Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena): *“Las Administraciones Públicas determinarán las retribuciones de los funcionarios en*



prácticas que, como mínimo, se corresponderán a las del sueldo del Subgrupo o Grupo, en el supuesto de que éste no tenga Subgrupo, en que aspiren a ingresar”.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, gainera, kontuan izan behar da Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legea, EAEko administrazio publikoetan praktikan dauden funtzionarioen lantsariei dagokionez honako hau ezartzen baitu 127.1 artikuluan:

“1. Euskal administrazio publikoek ezarriko dituzte praktikan funtzionarioen ordainsariak. Nolanahi ere, praktikan funtzionarioek eskubidea dute honako hauek jasotzeko, gutxienez: sartu nahi duten kidego edo eskala sailkatuta dagoen azpitaldeari, sailkapen profesionaleko taldeari edo titulazio-eskakizunik gabeko taldekatze profesionalari dagozkion oinarriko ordainsariak.

Nolanahi ere, praktikak egiten badira lanpostu batean jardun bitartean, lanpostu horri dagozkion ordainsari osagarriak gehituko zaizkio aurreko zenbatekoari.”

2. Aurrekarietan azaldu bezala, kexagilea praktikan funtzionario izendatu zen lanpostu honetan: *1925.00 Unitateko Arduraduna / 25. Goi Teknikaria, 25. mailako lanpostu-osagarria eta nahitaezkoa ez den 3. HE, XXXX lanpostuari lotua*. Horrela dago jasota (...) Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Praktikaldia amaitu zenean, behin betiko atxiki zen XXXX lanpostura, 28. lanpostu-mailako osagarriarekin.

Aipatu behar da 1925.00 lanpostu-kodea ez dela agertzen lanpostu propio moduan udalaren lanpostuen zerrendan, kategoria generiko moduan baino. Hots, lanpostu horren izendapenak ez dauka eduki funtzional propiorik, fikziozkoa da, lantsari-kategoria bat ezartzeko eman dena. Izan ere, izendapenean bertan ikusten denez, atxikita dagoen buruzagitzaren lanpostuari lotuta definitzen da (XXXX lanpostuari lotuta); hau da, benetan, lanpostu hark bere gain hartzen ditu azken horrek berariaz esleituta dituen eginkizunak, nahiz eta bien lantsariak oso desberdinak izan.

3. Bilboko Udalak Arartekoaren informazio-eskaerari erantzunez azaldutakoaren arabera, A1 eta A2 taldeetako buruzagitza-lanpostu batean, praktikan edo bitarteko langile gisa, lehen aldiz izendatzen diren pertsona guztiak (ez kexagilea bakarrik) sartzean dagokien kategoriako lanpostu batera atxikitzen dira, 25. lanpostu-mailako osagarrira, udaleko lanpostuen zerrendan xedatutakoa aplikatuz. Alabaina, aurretik Bilboko Udalean lanposturen batean izendatuak izan diren pertsonak, zuzenean praktikan funtzionario gisa atxikitzen dira



buruzagitza-lanpostuetan, baldin eta ezarritako esperientzia-urteak betetzen badituzte.

Aurretik azaldu bezala, Bilboko Udalaren lanpostuen zerrendan honako hau ezartzen da:

A (A1) eta B (A2) taldeetako bitarteko edo praktiketako langileak, buruzagitzako lanpostuak betetzeko lehen aldiz izendatzen badira, hasiera batean sarrerako kategoriari atxikiko zaizkio (25. maila A (A1) taldearen kasuan, eta kategoria horretan egongo dira, gutxienez, probaldian edo praktika-aldian.

Goragoko mailetako lanpostuetara edo kategorietara iritsi ahal izateko, administrazio honetan edo beste batean beren kategoriako plazan esperientzia egiaztatzeaz gain, destinoko saileko zuzendaritzak emandako eta Giza Baliabideak Antolatzeako eta Kudeatzeko Zuzendaritzara igorritako txosten bat beharko da, lanpostuaren burutzako eginkizunen betearazpenari buruzkoa. Zuzendaritza horrek, egoki bada, maila-aldaketa gauzatuko du, eta ondorioak izango ditu langileak kategoria bakoitzerako behar den esperientzia daukanean eta, egoki bada, probaldia edo praktika-aldia igaro ondoren.

Hurrengoa ere ezartzen da:

Karrerako funtzionarioak ez badira edo aurretiazko esperientzia hori ez badute, funtzionarioak 25. mailako arduradunaren kategoriara egongo dira atxikita, harik eta 3 urteko esperientzia eduki arte. Beraz, 3 urte horiek betetakoan, 26. mailako arduradunaren kategoriara igaroko dira, eta, azkenik, 27. mailako kategoriara iritsi ahal izango dira 6 urteko esperientzia daukatenean. Izan ere, ordura arte lortutako trebetasunarekin bateragarriak diren eginkizunak garatuko dituzte. Kategoria horiek buruzagitzarekin egongo dira lotuta.

Salbuespenetan, ikuspegi kualitatibotik antzeko eginkizunak garatu dituzteneko udaleko edota beste administrazio publiko bateko ordainsari-talde horretako lanpostuaren garapenean gutxienez 9 urteko esperientzia daukaten bitarteko funtzionarioek bete ahal izango dituzte 28. mailako buruzagitzako lanpostuak, buruzagitzako mailak kontuan hartuta.

Xedapen horietatik lehenengoa da kexagileari aplikatu zaiona, eta bigarrena aplikatu zuen Bilboko Udalak gainerako partaideak zuzenean atxikitzeo buruzagitza-lanpostuetan praktikak egiteko.

Hala ere, xedapen horrek, Bilboko Udalak berak adierazitakoaren arabera, hautaketa-prozesuan parte hartu zuten gainerako pertsonak 26., 27. eta 28. ordainsari-mailako lanpostuetara atxikitzea oinarritu zuen, baina ez du zehazten erabaki horretan baloratzen den esperientzia bakarra Bilboko Udalean garatutakoa denik; aitzitik, beren-beregi adierazi du litekeena dela esperientzia hori beste administrazio publiko batzuetan ere eskuratu izana, transkripzio osoan ikus daitekeen bezala.



Horri dagokionez, aipatzekoa da hautaketa-prozesuan bertan berriaz aitortu zela kexagileak bederatzi urte baino gehiagoko esperientzia zuela hautaketa-prozesuaren xede zen ekonomialari lanbide-kategoria berean, eta Bilboko Udalak berretsi egin zuen ondoren.

Hala, xedapen hori kexagileari aplikatuz gero beste parte hartzaileei aplikatu zaien moduan, 25etik gorako lansari-maila ere aitortu behar izan zitzaion, administrazio publiko batean egiaztatutako esperientziak 28. lansari-mailara atxikitzeko eskatutako urteak ere gainditzen zituelako.

Baina esku-hartze osoa aztertuta ondoriozta daitekeenez, kexagileari ez zitzaion xedapen hori aplikatu Bilboko Udalean egindako lehen izendapena izan zelako, eta, beraz, ez zelako baloratu beste administrazio publiko batzuetan arlo berean egiaztatutako esperientzia. Horrek, azken batean, esperientziaren tratamendu desberdina dakar, Bilboko Udalean edo beste administrazio batzuetan eskuratutakoa ez baita berdin baloratu.

Horri dagokionez, Ararteko erakundeak uste du ezin direla bereizi partaideen aurreko esperientzia edota izendapenak Bilboko Udalari edo beste administrazio publiko batzuei buruzkoak diren kontuan hartuta, eta ezin da ulertu, beraz, Bilboko Udaleko esperientziak edota izendapenak aukera ematen duenik lansari-maila handiagoko lanpostuak zuzenean eskuratzeko, eta beste administrazio publiko batzuetan esperientzia edo izendapenak dituenak, berriz, gutxienez sei hilabetez egon behar izatea lansari-maila apalagoan.

4. Beste alde batetik, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 76.7 artikuluan ezarritakoa aintzat hartuz, praktikaldien edo sarrera-proben bidez jakin daiteke izangaia egokia den deitutako kidego, eskala, titulazio-eskakizunik gabeko funtzionarioen taldekatze profesional edo talde profesional bakoitzeko lanpostuen edo lanpostu-taldearen berezko ardurak betetzeko.

Era berean, deialdiaren oinarri espezifikotan ezartzen da: *“Deialdiko plazako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak ebaluatuko dira praktikaldian, bai ezaguera teknikoaren aplikazioaren ikuspegitik, bai lan-ahalmenaren, erantzukizunaren eta ekimenean eta lantaldeetan jarduteko eta barruko eta kanpoko harremanetarako gaitasunen ikuspegitik.”*

Teorian, hautaketa-prozesu baten praktika-fasea nola egin proposatzeko era desberdinak daude: hasieran kategoriaren oinarriko funtzioak garatuz, categoria horren berezko funtzioak jorratzen diren zerbitzuetan txandaka lan eginez



tutoretzapean edo lanpostu baten berezko eginkizunak eta zereginak (lanpostu-zerrendan zehaztuta daudenak) zuzenean betez.

Kexan azaltzen denari helduta, kexagileak izendatua izan zen lanpostu generiko eta fikziozkoari lotuta zegoen benetako lanpostuaren eduki funtzionala garatu zuen praktiketako funtzionario gisa izendatuta zegoen bitartean. Lanpostu horren lansari osagarriak altuagoak ziren eta, horregatik, benetan bete zuen lanpostuaren osagarriak ordaindu behar zaizkio, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 127. artikuluan horri lotuta xedatzen duena betez.

5. Administrazio publikoak legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez jardun behar du (EKren 103.3 artikulua); era berean, men egin behar dio legearen aurreko berdintasun-printzipioari, Konstituzioak ezartzen baitu botere publikoek kasu berdinetan tratu bera eman behar dietela herritarrei, haien eskubide subjektiboa delako. Konstituzio Auzitegiak honako hau ezarri du (besteak beste KAren 145/91 epaia, uztailaren 1ekoa): *“para calibrar la legitimidad de la diferencia de trato en materia salarial, no puede tomarse en consideración otro elemento que no sea el trabajo efectivamente prestado, y la concurrencia en él de circunstancias objetivamente acreditadas”*.

Otsailaren 5eko 137/2020 epaian, Auzitegi Gorenak Salaren irizpide hau ezarri zuen:

“...existe una jurisprudencia consolidada según la cual al funcionario que acredita la realización de las funciones de un puesto de trabajo distinto del suyo y con retribuciones complementarias superiores se le deben satisfacer los complementos de destino y específico del que efectivamente ha desempeñado. Esa jurisprudencia no ha considerado que el significado del nombramiento en el que se detiene el escrito de oposición impidiera dar igual trato retributivo a quien realice iguales cometidos. El mismo hecho de que se haya formado y mantenido pone de manifiesto una realidad de la Administración Pública: la existencia de supuestos en que funcionarios realizan cometidos de puestos que no son los suyos o que puestos de trabajo con el mismo contenido funcional tienen asignados complementos diferentes. Se trata, desde luego, cuando menos de una disfunción, pero es un fenómeno que se ha dado en la medida suficiente para que el Tribunal Supremo haya llegado a establecer esa doctrina.

Asimismo, debe destacarse que es una práctica imputable a la propia Administración, que es la que debe asegurar la correcta provisión de los puestos de trabajo necesarios para el cumplimiento de sus funciones y crear las condiciones en las que no exista la posibilidad o la necesidad de que funcionarios destinados en un determinado puesto realicen las tareas de otro.

No es irrelevante a los efectos del debate planteado la circunstancia de que el artículo 24 del Estatuto Básico del Empleado Público no constituya un obstáculo (...). Sucede (...) que este precepto no establece un número tasado de supuestos en los que cabe retribuir





complementariamente más allá de lo que corresponde a su puesto de trabajo a un funcionario. Al contrario, utiliza una cláusula abierta.”

Beranduago, Auzitegi Gorenak honako hau adierazi zuen azaroaren 15eko 1493/2022 epaian:

“Respecto a que la fijación de un nivel inferior esté justificada cuando se trata del primer destino, hemos insistido en que lo relevante es la identidad de cometidos o funciones y responsabilidad entre los puestos que se contrastan, luego no habiendo diferencias carece de justificación tanto el diferente nivel de complemento de destino asignado como del específico. También se rechaza la vulneración de los artículos 15 y 23.3.a) de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública, y en cuanto a que se trata de primeros destinos, hemos declarado lo siguiente en numerosas sentencias (vgr. entre otras, las sentencias 19 de julio de 2006, recursos 3378, 3395 y 5601/2000):

“... el mero hecho de ser funcionario de nuevo ingreso no justifica por sí solo un diferente trato en esos dos conceptos retributivos [se refiere a los complementos de destino y específico] de que se viene hablando cuando existe identidad en todos los aspectos del desempeño profesional. Pero este razonamiento ni supone confundir ambos conceptos ni tampoco una interpretación o aplicación desacertada de esos preceptos constitucionales que en este motivo se invocan como infringidos, porque, siendo cierto que los complementos de destino y específico responden a finalidades diferentes y los determinan hechos igualmente distintos, ambos complementos tienen una naturaleza objetiva y no subjetiva”.

Ildo horretan, Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren apirilaren 26ko 397/2006 epaian ezarri zen:

“Con ello no se hace sino asumir las lógicas consecuencias del binomio “trabajo-retribución”, pues supondría un enriquecimiento injusto de la Administración el tener cubierto un puesto de trabajo, abonando a quien lo desempeña tan sólo las retribuciones básicas propias de su Cuerpo, Escala o categoría, y sin abonar las retribuciones complementarias correspondientes al puesto. Así pues, acreditado que desde el 17 al 28 de febrero de 2.003 la recurrente realizó las prácticas desempeñando efectivamente un concreto puesto de trabajo, la Administración no puede negarle su derecho, reconocido por el Real Decreto 456/1.986 (EDL 1986/9203), a percibir las retribuciones complementarias del puesto que desempeña, amparándose en una Instrucción interna sobre elaboración de nóminas para cada anualidad, cuyo único objeto y finalidad es “facilitar la confección de las nóminas”.

Azken batean, interesdunak, praktiketako funtzionario gisa jardun zuen aldian, buruzagitza-kategoriako (28. maila) lanpostu bati dagozkion jarduera eta eginkizun guztiak egin zituen, inolako mugarik gabe, eta bere gain hartu zituen erantzukizun guztiak.

Horixe azaltzen du kexagileak udalari bidali zion eskaeran eta Ararteko erakundean aurkeztu zuen kexan; atxikita zegoen Arloko Zuzendaritza horrekin bat zetorrela ere adierazi zuen. Bilboko Udalak ez du eman (ez eskaeraren ebazpenean ez Ararteko erakundera bidalitako txostenean) baieztapen horren



kontra doan edo zalantzan jartzen duen argudiorik; horrenbestez, aurreko jarduketa guztiak kontuan hartuta, Ararteko erakundeak baieztapena ontzat eman behar du.

Eta, ondorioz, erakunde honek ezin du justifikatutzat jo Bilboko Udalak kexagileari aplikatu zion lansariaren murrizketa, 28. lanpostu-maila ezarrita zuen lanpostuan lan egiteagatik 25. maila ordaintzean.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Hezkuntza Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Berrikusteko kexagilearen ordainsariari lotuta hartutako erabakia, eta ordaintzeko praktikaldian zegoenean benetan bete zuen lanpostuari (28. maila) dagozkion lansari osagarrien eta jaso duen zenbatekoaren arteko aldea.

